

Hezkuntza inklusiboaren deia, premia eta inplikazioa

*Segundo Garin Casares
Amando Vega Fuente
Pello Aramendi Jauregi*

Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO HITZAK: *Hezkuntza inklusiboa (muin bakarra), giza eskubi-deak, ezgaitasunezko pertsonak, bazterketa, curriculum, aukera berdintasun.*

«Ez da bakarrik haurrak eta nerabeak hezitzea, hezitzen duten hezitzaileak hezitu beharrean gaude ere, eta geuk hezitzea zahartzaroan barne».

(Caro Baroja, J. 1985,
eskuz idatzitako testua)

1. SARRERA

Artikulu honen helburu nagusienetako bat nolabait zehazteko, hauxe izango litzateke: «eskola muin bakarrak, eskola inklusiboak» eskaintzen duen ahalbidea azalaraztea irakurle eta profesionalengan, gogoeta sakon bat proposatuz. Zein estrategia hobeagorik gizarte barnekoi edo inklusiboarentzat, eskola muin bakarra baino? Gizarte bere izatez muin bakarrekoa izanik, nola justifika daiteke eskola ez muin bakarrekoa?

2011. urtea murrizketen urtea suertatu zenez, 2012koa ez ditu eskaini egoera samurragoak pertsona ugariarentzat, zoritxarrez oso ugariak. Mozketak, doitzeak dei ditzagun nahi den eran, ezin dezakegu ahaztu hitzek bere barnean gordetzen dituztela, inozente itxuraren azpian, ideiak eta planteamendu kontrajarriak. Ebidentzia bada krisialdi honek eragin handia duela biztanle kopuru zabalean, eta begi bistan dago ere jende xumeenak jasaten dituela beraren ondorio gordinenak. Adierazpide bat aitatzegatik, gazteen

artean langabezi tasa Espainian % 53.2ra heldu da 15 eta 29 urtekoen artean (Europa Elkartearen Informea, *El País*, 2012-09-14).

Zenbateraino eragiten dio krisi honek hezkuntza inklusiboari? Pertsona mugatuei eta bizi direnen inguruari murrizketak heltzen zaizkienean, eragina dute beraiei dagozkien ekitaldi guztietan, zeren ez baitituzte bakarrik errekurtsioak exijitzen, konpromisoko dedikazioa baizik. Urritasunak dituzten pertsonak poliki joan dira bere integrazioa gauzatzen ikastetxe arruntetan eta hau, pertsona asko lanari esker. Lehenengoz beraiek eta beraien senideak, gero inplikaturako zenbait profesionalak sinistu egin dituztela beraien eskubideetan eta ezin da ahaztu, Administrazio publikoaren konpromiso zehatza ere. Hala eta guztiz ere marjinazioa, eskusioa, dario gizarte zirrikito askoetatik eta denbora eta espazio gutxi uzten die mugatuta dauden pertsonari. Krisialdi ekonomikoa, beste krisi batzuen isla da, mundu desorekatu baten ondorioa, merkatu baten menperatzailea, bihotz gabekoa, non, dirua balore nagusia izanik, ahaztuta lagatzen baititu pertsonen beharrak eta eskubideak.

Zein rola jokaten du hezkuntzak gertakizun konplexu honetan? Atzera begiratu bada, baiezta daiteke hezkuntza sistemak ere ahalbidetzen duela egoera hori, pertsonak hezi dutelako gaur egun ekonomia zorrotz eta eskusioa moldean, lehiaketarako ekonomian, eta, aldi berean, eskasiak dituzten pertsonak baztertzen dituztela bitartekorik ez izateagatik. Oraina, aldiz, mugaz josita dago, mila zalantza sortzen dira. Zein da berez hezkuntza sistemaren paper barneratzailea? Egia da asko hitz egiten dela hezkuntza inklusiboaz eta gobernuek harekin konprometiturik daudela. Baina ohartu behar da ere, merkatuak hartzen ari direla ikasketen curriculumen gida-uhalak (LOMCE, Aurreproiektua, 2012:1), formazio ekoizpen kompetitiboari bideratua, begirada bikaintasun baztertzailaren ipinita, hau da, interes gutxiago azalduz, kalitatezko hezkuntza integralean pertsona guztientzat. Hoberenak bakarrik dirudi lekua izango dutela merkatu berrietan.

Honela, hezkuntza inklusiboa, gero eta beharrezkoago bihurtzen da, nahi bada eraiki, oinarritik, gizarte gizatiarragoa eta justua, non bakoitzak duen dagokion lekua pertsona soilik izateagatik. Zenbait haurrek ezin dute eskola arruntera joan beren gutxiegitasunengatik edo beste batzuek ezin dute lanik aurkitu urritasunen bat edo beste dutelako. Guzti horiek dira agerraldi garbiak gizarte baztertzailen batenak, jarraitzen baita sailkatzen eta kokatzen pertsonak beraien gaitasunen arabera. Ezin da ahaztu, bestalde, bazter ekitaldiak edonon agertzen direla, gune babestuenetan, inklusibo aterpe azpian ere. Baztertze egoera, generoaren eskutik etor daiteke, sexu orientazioa dela, adina, sinesmenak edo eskasiak, fisikoak izanik, psiki-koak, zentsuzkoak, gizartekoiak eta kulturalak, besteak beste.

2. HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN ESKUBIDEA

Onartzen bada pertsona guztien duintasuna eta ulertzen bada pertsona guztiak ditugula mugak eta ahalmenak, hobeto ulertuko da guztien hezkun-

tzarako eskubidea, hau da, behin esanda, hezkuntza inklusiborako eskubidea. Nola justifika daiteke orduan, pertsona batzuk oinarritzko zerbitzutik kanpoan uztea bai eta bizitza arruntetik ere? Agian, arrazoi ekonomikoak, «teknikoak», kulturalak, itxurazkoak...? Non geratzen da orduan, pertsonen duintasuna?

Haurren Eskubideen Konbentzio Internazionalak (1989) adingabea onartzen du eskubideen subjektu autonomo bezala, eta bereziki babestu behar dela. Konbentzioak, onartua ia munduko Estatu guztiengatik, onartzen du oinarritzko printzipio gisa, haurraren interesa.

Hezkuntza inklusiboa, planteamendu hauetatik, ez dago krisialdian, zeren internazional erakundeek nahiz aberri askoren konstituzioek ekin beharren oinarritzko printzipioa hartzen baitute. Biztanle gehienek ere ongi ulertzen dituzte pertsona guztien eskubideak (batez ere pertsonalki dagozkienean) eta onartzen da hezkuntza oinarriaren beharra, bai ongizate pertsonalerako eta gizarte gizatiar eraikuntzarako.

Hala eta guztiz ere, praktikan, urritasuna jasaten duten haurrek, galtzeko arrisku guztiak dituzte. Krisiaren izenean Administrazioak edozein murrizketa justifika dezake, arlo guztiko murrizketak, familiei, hezkuntza zerbitzuei, gizartekoei, kulturei eta abar. Honela merkatuko ekonomiak, arretatsua diruarekin pertsonekin baino, bultzatzen du kompetentzi desleial, gero eta gehiago baztertzailerak, gizakiak, gizakiaren aurpegia galduz.

Langabezia ondoko zenbakiaren inguruan kokatzen da Espainiako Estatuan 4.865.942 (INEM 2013:7). Jende asko ikutua dago egoera latz honetan, murrizketak eta doiketak direla medio. Urritasun errealitatea ehuneko hamar pertsoneri dagokie (% 10.0), 650 milioi pertsonak mundu zabalean (Naciones Unidas, 2013), gizarteratzeko urritasuna kontatu gabe. Nekez aurkitzen da sendirik halako egoerarik gabe. Gainera denok gara baliotsuak epealdi soil batean eta egoera latz honetan, etorkizuna kolokan dagoenez, denok ditugu ahalbideak baztertuak izateko gizarte egonkor honetatik.

Horregatik arrotza suertatzen da, hezkuntza muin bakarra gizarte oso baten kezka handia ez izatea, zeren hizketan gaude hezkuntzaren eskubideari buruz, eskubide hori pertsona guztiei dagokie eta guztiz beharrezkoa da elkar bizitzaren integrazioa lortzeko, hau berez, guztioi interesatzen zaigu. Partekotasuna bestaldetik, ezin daiteke gera eskola gunetan soilik, zabaldu behar dugu ere eremu laboralean eta pertsonak erlazionatzen diren leku guztietan. Gaurko legediak onartzen du eta igortzen digu «Europa Batasunerako Ekitaldirako Tratatu» (Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea delakoan), hamargarren artikuluan zera dio: *politika eta ekitaldien inplementazioan eta definizioan, Batasunak helburu bezala eduki behar duela ekintza baztertzailerak erasotzea, edozein arrazoi izanik ere, arrazoi sexualak, arrazakeria, etnia, erlijio edo sineste, ezgaitasun, adina, sexu orientazio, eta Europar Batasuna Kontseiluaren Erabakia, 2010eko abenduaren 23an non eta Batasunak, Konbentzioa onartu zuen.*

2012ko urte hau ere deklaratu izan da «Belaunaldien arteko Solidaritate eta Zahartzaro Ergatiborako Urte Europarra». Esparru honetan gartuko diren ekitaldiak honako helburu nagusiak izango dituzte:

- Gizartea zahartzaro ergatiboaren baloreaz sentsibilizazioa, ahalbidetzen leku nabarmen bat eskaintzen zaiola politika agendetan.
- Informazio eta eztabaida suspertuz, baita elkar ikasketa barne Estatuaren artean areagotuz.
- Esparru bat eskaintzea konpromisoak onartzeko eta ekitaldi zehatzak gauzatzeko, non konpon bideak gara daitezten, luzera begira diren politika ekintzak eta estrategiak, berritzaileak zahartzaro ergatiboarekin eta belaunaldien arteko solidaritatearekin bat datozenak.
- Adinarenegatik bazterketa guztiak ezabatu arte ekitaldi zehatzak proposatu.

Guzti honekin ez dugu esan nahi eremu honetan aurrerapenak egon ez direnik, batez ere haurren eremuan. Egia da asko egin dela, atzera begira eta ikusten da zoroetxetan pertsonak espetxeratuak, haurrak utziak ospitaletan, gazteak erreformategietan, adin gabeak kartzeletan, urritasunekin haurrak hezkuntza berezi zentroetan sartuak, eta abar, eskola bat arduragabea, non, bazterrean uzten zituen patroiz zehatz bati erantzuten ez zioten haurrak. Norbaitek pentsatzen al zuen orduan hezkuntza inklusiboan?

Zoroak bazeuden hezkuntza integral batean pentsatzen zutenak eta eskola guztiontzat eskaini behar zela aldarrikatzen zutenak, eta hau gizarte sistema baten aurka non hezkuntza erreserbatua zegoen dirudunentzat eta ulertzen zen eskola publikoa errekurtsio bat bezala jende txiroa kontrolatzeko. Honela Comenio (1592-1670) eskatzen zuen «den dena guztioi erakuts dadin». Pestalozzi (1746-1827), bere aldetik, irakats erakunde guztien erreforma bat eskatzen du, non hezkuntza are eta demokratikoagoa lortzeko lagun dezaten irakasleak, hauek ikasle beharrezko zerbitzurako daude, haurren ahaleginetan konfiantza jarritz. Bere interesenatariko balore nagusia, hezkuntza berdina zalea eskaintzea da, hau da, baztertua dagoen jendea hezi ahal izatea.

Hala eta guztiz ere, egitear asko geratzen da. Askok aurreratu da urritasun «klasikoetan» (fisikoak, buruko gaixotasunak, zentzumenezkoak), baina egitear daude garunezko gaixotasunak, sexu aniztasuna, ijitoen kultura eta abar. Informazio zehatzagoa aurki daiteke Euskal Autonomi Erkidegoan (EAEn), Arartekoan, adin gabeko Babesleen Informatan, hainbeste erakunde urritasunen jasatzaileak argitaratzen dituzten argibidetan eta ikeritzaile konpromisodunak hezkuntza muin bakarrarekin eskaintzen dizkiguten ekarpen aberatsetan...

Krisialdi ekonomikoak, Marchesiren iritziz (2011), ez du eraginik pertsonen eta ahalbide ekonomiko eta gizarteko orain eta gero laboral eremuan soilik, baizik eta, eragin handiagoa du oraindik jarreraz eta balore pertsonaletan. Ekonomiaren arazo nagusienek agertu egin digute azpian

zegoen maltzurkeria, interes pribatuak garatzen zirela inolako kontrolik gabe, irabazpenak edozein salneurrian erosten zirela inolako eredu edo balore kontutan hartu gabe, balore arrunt guztiak baztertuz. Ondorioak ezagunak zaizkigu: langabeziaren handitze, ongizate pertsonalaren apurketa eta famili ugari txirotasun larri egoeretan aurkitzea. Honekin batera: botere publikoetan konfiantza apurketa, etsipen, koloka, mesfidantza hiritarra elkartasun baloretan. [http://politica.elpais.com/politica/2013/01/12/actualidad/1358017896_990807.html]

Egoera honetan, jarrera baztertzaleak eta hautazkoak indarrez jotzen dituzte. Hainbeste herri-lazeriaren aurrean, batzuk diote, zorigaitz gehiegi, beharrezkoa dela areagotzea pertsonal esfortzua eta pertsona bakoitzak dituen ahalbideak eta gaitasunak ikasteko, aurrera jotzeko eta bizitzan bidea zabaltzeko. Beharrezkoa da, baieztatzen dute, gaitasuna areagotzea hobere-nak irabaz dezaten eta eskaintzea abagune gehiago ahalmen gehien dituztenei ezen beraiek dira aprobeitza ditzaketenak (LOMCE Aurreproiektua, 2012:1). Aldiz, hezkuntza bera baita haur ahulen eskubide bat (Ararteko, 2011; Vega, 2012) eta haiei dagokien arreta berezia onerako doakio gizarte integrazio baikorrari.

Beraz, ikusi behar da, zeintzuk diren hezkuntza muin bakarrak planteatzen dituen erronkak, ez bakarrik eskolari eta bere ingurumenari buruz, politikari eta gizarteari ere bai. Ezin dezakegu ahaztu heziketa ez dela eskolaren betebeharra bakarrik (Vega, 2000; Garin, 2012), bizitzan zehar zabaltzen den eginkizuna baizik (UNESCO, 1994; Vega, 2003). Eta honegatik, hain zuzen, eskolaratze erabateko muin bakarrak ipintzen dituela beharrezko oinarriak eta gizarte integral barnekoia ahalbidetzen duela.

3. HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN ERRONKAK GIZARTE HONETAN

Egokia da, ulertaraztea zentzu sakonean erdiespen konprometitua hezkuntza inklusiboarena. Erraz hitz egiten da gaur egun hezkuntza muin bakarrak, eragipen hitzez moduan edo modan eritmoaz mugituz albiste berrien bila. «Barnekoitasuna», «muin bakartasuna», «inklusioa», zerbait magikoa balitz bihurtuz, itxuraren bat edozein proiektuarentzat edo erakundearen balioa erakusteko.

Honela izanik, topaketa asko dira eta agiriak azpimarratzen dituztenak hezkuntza muin bakarraren berri eta aberastasuna, postmodernitatearen aurrerapen eran azalduz, kritika zorrotza eginez aurreko Hezkuntza Bereziari eta integrazio mugimenduari ere. Ahaztutzat ematen den iragan hori, askotan ere ezezaguna, irakats gaiez osaturik dagoela esan behar da, ikasi beharreko atal asko dituela, zeintzuk izan ziren hura egokitu zituzten printzipioak eta zer nolako eragozpenekin topo egin zituzten beraien garapenean. Aldiz, erru edo hanka sartze antzekoak berregiteko arriskuan egon gai-

tezke, hau da, hizkuntza jantzia eta diseinuzko zerbitzuen atzean, baztertzaike izaten jarrai. Magoen soluziobideak ez daude hezkuntza muin bakar batean, konpromisoa ez da bakarrik eskolako, gizarte osokoa baizik, beste «arau berriak jokoan» eskatzen dituelako (Vega, 2010; Toboso *et al.* 2012). Zer erronkak planteatzen ditu hezkuntza muin bakarrak? Ginebran, 2008an ospatutako Hezkuntzarako Nazioarteko Batzarrak goiburua honekin, zioen, «*Hezkuntza Muin Bakarra: etorkizunerako bidea*», ezin du izan argiago honetaz:

«Hezkuntza muin bakarra prozesu bat da non eskolen erraiak eraldaketa jasan behar dituzte baita beste ikas zentroak ere, haur guzti guztiok aintzat hartuz izan daitezen, mutil nahiz neska izan, etnia gutxiengo ikasleak, VIH/HIES kutsatutako ikasleak, adimenez atzeratuak eta ikas-teko eragozpen dituztenak. Hezkuntza prozesua esparru askotan eramaten da aurrera, hezkuntza formalean eta ez formalean, familietan eta gizarte orokorrean. Horregatik, hezkuntza muin bakarra ez da ertzeko gai bat, guztientzat kalitatezko hezkuntza bat lortzeko gurutze-antzekoa da eta gizarte barnekoia garapenerako ere oinarri» (UNESCO, 2008: 3).

Politika eta gizarte aldaketa handien aurrean komeni da hau gogoratzeara, une hauek zoritxarrez markaturik datozela, merkatuen interesen arabera, pertsonen beharrez eta eskubideez baina. Gobernatzaileak askotan ez dute ikusmira luze, nahiz eta beraien diskurtso ospetsuak barnekoia izan, ongi aski ulertu gabe proposamenen erdiespenak eta beraien ekitaldien ondorioak:

«Haurrek bere garaian, gaitasunen garapena abagunerik ez izatean, beraien familiak txirotasunaren arriskuan kokatzen dira edo txirotasunaren bidean jarri, txirotasun kronikoa aldapaz behera ahokatu. Modu honetan, hezkuntza gero eta muin bakarra izanik ahalbidetzen ditu Milenioaren Helburuak lor araztea, premiazko txirotasunaren errausketa batek eta oinarrizko hezkuntza unibertsala bestetik» (UNESCO, 2008: 3).

Merkatu hain interesatuetatik eta senda-laguntza ikusmenetik harago abiatu beharko gara urritasun fisiko, psikiko eta gizarte errentagarri isurialdez. Estrategiak eta bitartekoak martxan jartzea da helburu, hezkuntza zerbitzuetan barnean eta kanpoan, garapen pertsonala ahalbidetzen dituzten bitartekariak, hau ezin baita egin profesionalen inplikaziorik gabe ezta kalerik jenderik gabe. Hezkuntza muin bakarra beharrezkoa du gizarteak, ez baztertzaikea, konprometitua pertsona guztiek dituzten eskubideekin.

Zeren gaur gure gizartean kezkatzen gaituzten arazoak, heltzen dira era batean edo bestean ikastetxeetara. Eskoletan dauden haurrak ez dira bakarrik gizarte honetakoak eta arazoaren zama daramate ikastetxeetara heltzen direnean, askotan zeharkako eran, beraien familiak ukituak daudelako (errekurtso ekonomiko urriak, langabezia, itxaropenaren eza...), zuzenki

ere bai, beraien haragietan gabeziak sufrirituz (tratu txarrak, gutxiezigiko elikagaia...). Irakasleok, erne egonik, gain hartu egin beharko ditugu egoera horiek, zenbat haurrak laguntza behar duten, arriskueta eta babes falta dituztenak, ikusmira zabalarekin aztertu dagoen egoera familiarra gizarte ingurune baztertzailan:

- Haurren abandonu, uko zehatz edo inplizitu batekin.
- Gurasoen betebeharren egin eza: entzungortasuna, osasunaren zaintza eza, hezkuntzaren gabezia..., guzti hau nahita izanik ala nahi gabe.
- Familien desegituratze bortitzak dakarren segurantza falta: droga menpekotasuna, alkoholismoa, delitugintza, gurasoen urritasun fisiko edo psikikoa, bortizkeria...
- Arrazagatik, sexu, ezgaitasun edo gaixotasunagatik jasaten diren zokoratzeak.
- Fisikoki jasan diren gehiegikeriak, bai familiaren barne nahiz familiaratik kanpo.
- Psikiko gehiegikeriak: desafektu, desbalorapena, meatusak, bazterteratze, hitzen eraso, ikara.
- Sexu gehiegikeriak edozein eratakoak.
- Edozein moduko esplotazioa.

Eskola tradizionaletik harago joan beharra dago, hautaketan inplikatur zegoen, ikasleen heziketa integral batean baino. Arazo dituzten ikasle guztiekin organizazio baztertzaila bat hautatzea, berez dakar, organizazio pareko bat, baita gune eskolarrean barne («integrazio haurrak», «curriculum egokitze gela», «zentro muin bakarrek» eta abar.

Mugak dituzten pertsonen alde, beraien eskubideei buruz, gizarte kontzientziario handiena egin beharra dago. Elkartasun sendo, konpromiso politiko handiena legedian onartua, ekintzazko planak eta akordioak planeta mailan. Nazio Arteko Konbentzioak (2006) kolaboratu egin du hezkuntza barnekoiarekin. Nahiz eta aurrerapen handia egin den Salamankako Deklaraziotik hona (1994), egitear asko geratzen da oraindik hezkuntza muin bakarren alde, utopia bat bezala kontsideratuz eta haren lorpenetan saiatuz, ahaztu barik atzerapen posibleak direla merkatuaren erritmoaz. Eskola laga edo utz heldu aurreko, aitatzen den eskola porrota, bizikidetzara arazoak... manifestaldiak besterik ez dira, hezkuntza sistemaren gabeziak adierazteko, noski, eta hauek gaintzen ez diren bitartean, baztertzaila faktoretan bihurtuko dira. (Ferrer, Valiente eta Castel, 2010) diote, *ingurune sozioekonomiko familiarra dela ikasleen ondorio eskolarretan eragin handia duena*.

Ongizate Estatu baten erronka nagusienetako bat, hurrei eta haurtzarotik hasita, guztientzat gainera, abaguneen berdintasuna ziurtatzea da, honela aurreikusten eta ziurtatzen da etorkizunean gizartearen babes. Txikien eta familien bazterketa eta txirotasuna aurreikustea giza inbertsioz

hasiera hasieratik, sozializazio eta ikasketa prozesuetan adin-nagusitasun lortu arte, hau ezinbestekoa zaio gaurko gizarteari ezen horrela ziurtatzen dira ondoriorik hoberenak. Planteatutako erronka, beraz, bi dira: abaguneen berdintasuna eta etorkizuneko ekoizpena. Baina ezin da diseinatu haurrentzako babes politika bat familia eta emakumearen urrundik (Esping-Andersen, 2010).

Guzti honegatik, hezkuntza muin bakarra, baldintza guztiak onartuak, iraultzailea bihurtzen da baztertzaille mekanismoez mugitzen den gizarte batentzat. Horrela uler daiteke Nazioarteko Hitzaldiak hezkuntza barnekoari buruz (2010) zera dio, behar beharrezkoa direla politika neurriak non eta biztanle guztiak jaso dezaten kalitatezko hezkuntza bat, ekitatezko eta kalitatezkoa, aldi berean, esku izatea behar diren errekursoak (ekonomikoak, gizatiarrak, didaktikoak, tekniko eta teknologikoak), zentroek izan behar dituzte ahalbide guztiak beraien ikasleak goi mailara abiatzeko, beraien baldintzak aparte, hau da, baldintza pertsonalak, gizartekoak, ekonomikoak, kulturalak, geografikoak etnikoak edo bestelakoak. Baita ardurua handia hartzen du profesionalen heziketa (Agencia Europea, European Agency, Hezkuntza Berezi Beharrak dituzten ikasleentzat Hezkuntza Garapena, 2011).

4. ZER ESKAIN DIEZAIROKE HEZKUNTZA INKLUSIBOAK GIZARTE HONI?

Nazioarteko Adierazpenak (UNESCO, 2010) Madrilen ospatua arreta berezia eman zizkion, bai aurrerapenei zein erronkei, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Lanbide Heziketan (LH) eta Goi Mailako Hezkuntzan (GMH). Azpimarratzen ditugu ondoko ekarpenak:

- Hezkuntza muin bakarrak, pertsonan kokatua, onuragarria da ikasle guztientzat, behar berariaz izan nahiz ezgaitasun deklaratu batzuk eduki edo beste edozein egoeran aurkitu, guzti guztiok antolatzen ditu gizarte anitz batean bizitzeko.
- Politika konprometitu batetik eta gizartearen inplikazioa lagunduz, areagotzen ditu aldaketa sakon eta sistematikoak, hau da, ikusmena ematen du, jakintza, gaitasunak eta lauki legala non egin daiteken hezkuntza inklusibo bat, kalitatezkoa, ekitatez eta bikaintasunez, ingurune arruntetan eta hezkuntza sistema maila guztietan.
- Areagotzen ditu praktika onen harremanak eta laguntzen ditu koordinatutako sektorial arteko politikak.
- Gauzatzen ditu biltze sistemak eta informazio analisiak, politikak eta praktika barneko egokiak jarraitzeko, adierazleak erabiliz, faktoreen nortasuna garatzeko, baztertze prozesua areagotzen dituztenak eta inklusio prozesuak laguntzen dituztenak ere.

- Zentroen transformazioan laguntzen du ea behin lortzen den guzti guztientzat hezkuntza eskubidea.
- Errazten du hezkuntza maila ezberdinen arteko pasa lekua eta haue-
tatik laboral mundura, lehenesten aurreikustea eta arreta goiztiarra.
- Gizarte zibilaren laguntza eta bultzakada eskatzen du beharrezko di-
ren aldaketak gauzatzeko.
- Bultza arazten du irakaslearen hasiera eta etengabeko formazioa
hezkuntza maila guztietan, jakinda ikasleen aniztasunari dagokion
arreta emateko eta lana ongi gauzatzeko, hezkuntza muin bakarra
dela giltzarria xede duin batetara abiatzeko.

Hau da hain zuzen ere hezkuntza muin bakarraren aberastasuna, CERMI berak aukeratu baitu urteko agerraldian hain justu urritasun per-
tsonen egunean (2010) ikur honen azpian, *Eskola muin bakarra erreal eta
eragileagatik*. Hezkuntza da, zalantzarik gabe, ezberdintasun aurka, baz-
tertze egikeraz eta txirotasunaren kontra, dugun faktore hoberenetariko
bat. Hezkuntza muin bakarra, kalitatezko hezkuntza esparruetatik begiratu
behar da, abaguneen berdintasuna, sarbide unibertsala bizitza osoan, hala-
ber, CERMI (2011) dioenez bere agerraldiaren lehenengo atalean:

«Urritasunezko pertsonak doitu behar zaizkie ezagueraz, trebetasu-
naz eta abileziaz, hasten diren ibilbide konkretutik, dituzten gabeziak eta
ezberdintasunak konpentsatuak izan daitezen».

Ezen ezinegona ez baita falta erakundeen artean, Administrazioaren
ulergaitz eta gizarte orokorraren arduragabekeriaren artean. Honegatik, ho-
berena, urritasun batekin bizi direnen iritzia jazotzea da bide egokiena, fa-
miliak entzutea, hain zuzen. Jakin badakigu urritasunak zer nolako mugak
ipintzen dituen eta gizartea berak ere ez dela gai behar guztiei erantzuna
emateko. Literatura eta zinea ere hurbil gaitzakete mundu ezezagun horre-
tara.

Jarraitzen dira zaurtzen urritasuna duten pertsonen eskubideak, ikus
daitekeenez (CERMI, 2010; Comité Español de Representantes de Per-
sonas con Discapacidad delakoan) argitaratutako informean. Elkarte ho-
nek giza eskubideei buruz datza. Dokumentu horrek sakonki aztertzen du
Konbentzioak ontzat hartutako artikuluei errespetua eta 2010. urtean zehar
eman izan diren zaurtzapenak, Administrazioaren aldetik egin diren eginki-
zun positiboak eta epaimahaiek emandako hainbat erresoluzioak, aldi be-
rean eskaintzen ditu beste hainbat aholku edo proposamenak.

Informearen ondorio nabarmenen artean aitatzen dira betetako zaur-
tzapenak Konbentzio eta Espaniako legediaren artean dagoen gatazka-
gatik, arautegiak dituen gabeziak giza eskubideen perspektiban, urrita-
suna ahaztuta edukita eta eskubideen urraketa abagune ezberdinengatik.
Zehatz, egileek azpimarratzen dute fokapen egoki baten eza giza eskubi-

detan eta Sistemaren Autonomia Urritasun dituztenei Arreta egokia emateko (SAAD) laguntzarako prestazio oso garatua eta autonomi pertsonala garatzeko zerbitzu oso urria, berdin bizitza askeari eta gizarte barnekoari dagokiona.

Beharrezkoak dira jarreraren aldaketak muin bakarra suposatzen dituen norabideruntz, hau da, urritasunak jasaten dituzten ikasleak, eskola arrunt eta barnekoian kokatzea, zeren hezkuntza komunitateko pertsona guztiei dagokie, hezkuntza politikei, mendeko pertsona elkarteei eta irakasle hezitzaileei. Horregatik, hezkuntza muin bakarraren mugimendua hobekiago garatuko da perspektiba unibertsal batetik abiatuta.

Nazioarteko izari hau ikus daiteke ondoko Erabakian «Nazioarteko Arau adostuak abagune berdinei buruz urritasun dituzten pertsonentzat» («Normas uniformes de las Naciones Unidas sobre igualdad de oportunidades para las personas con discapacidad delakoan»). Nazioarteko Organiza-zioak (2006) erabakian gai esanguratsuak jasotzen ditu:

1. Aberriek onartu egin beharko lituzkete abagune berdinen printzipioa Lehen Mailako Hezkuntzan (LMHn), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBHn) eta Goi Mailako Ikasketetan (GMIn), urritasun eta leku integratzaileetan haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat.
2. Ziurtatu beharko lukete urritasunak dituzten pertsonen hezkuntza integrala, Hezkuntza Sistemaren parte izatea.
3. Gurasoen taldeak eta urritasun pertsonen elkarteak inplikatuak egongo dira hezkuntza prozesuan eta maila guztietan.
4. Hezkuntza derrigorrezkoa diren Estatuetan, hezkuntza eskainiko zaie haur guztiei, edozein urritasuna izanik ere, gordinenak barne.
5. Hezkuntza muin bakarra gauzatzeko, Aberriek zehaztu beharko lukete legedi zabal bat non eskola eta komunitateko beste maila zabalagoak tokia izan ditzaten, baimendu egin beharko lukete curriculum malgu bat eta laguntzak nahiz adaptazioak, kalitatezko materialak erraztea, eta gauzatu irakasle ohizkoentzat etengabe formazioa baita laguntzarako irakasleei ere.
6. Hezkuntza muin bakarra eta elkartean oinarritutako programak izan beharko lirarteke osagarritzko lorpideak hezkuntza zehatz bati urritasun pertsonentzat, gastu eta formazioari dagokionez. Erkidegoek garatu beharko lituzkete bertako errekurtsuak hezkuntza hori eskaintzeko.
7. Zenbait kasutan, eskola arruntek ezin badute erantzun egokirik eman beraien ikasleei, orduan aintzat hartuko da hezkuntza bera eskola berezietan ematea, baina ahaztu gabe muin bakartasuna dela helburu. Kokaleku hau eduki beharko lituzke eskola arruntaren helburu berdin berdintsuak, baliabideak barne, urritasun gabeko **ikasleei eskaintzen zaien moduan.**

Hezkuntza Berezi Beharretarako Munduko Konferentzia, UNESCOk antolatua (1994), bere aldetik, gogoratzen ditu eskola muin bakarraren guztientzako onurak, ohartzen duenean:

«Baztertzaille jarrerak arbuiaitzeko bitarte eginkorra da, ongi etorriko elkarteak eraikiz, gizarte barnekoi bat eratuz eta guztiontzat hezkuntza lortuz; gainera, hezkuntza eraginkor bat haur gehienei eskaintzen diete, eraginkortasuna hobegotzen, eta, azken finean, kostu-eraginkortasun erlazioa, hezkuntza sistema osokoa» (UNESCO, 1994: 10).

5. EUSKADIN, GAUR EGUN, ZER GERTATZEN ARI DA?

